

EBALUAZIO DIAGNOSTIKO ZENTSALA
2025-2026 IKASTURTEA
DBH 2

HEZKUNTZAKO IKUSKAPEN ZERBITZUA
EBALUAZIO ATALA

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
1.1. Ebaluazioaren izaera zentsala; salbuespenak eta egokitzapenak	5
1.2. Matrikularen eta parte-hartzearen datuak	6
1.2.1 Datu globalak eta hizkuntza ereduaren arabera xehatutako datuak	6
1.2.2 Datuak generoaren arabera xehakatuta	6
1.2.3 Proba egin duten ikasleak, gaitasunen arabera banakatuta	6
1.2.4 Bertaratu ez diren ikasleak eta proba egin duten ikasleak, gaitasunen arabera banakatuta	7
2. GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA (GHK)	8
2.1 Probaren deskribapena	8
2.2 Galderak: informazioa	9
2.3 Emaitzak	11
2.3.1 Emaiza orokorrak	11
2.3.2 Emaitzak generoaren arabera	11
2.3.3 Konpetentzia mailak	11
2.4 Puntuazioen banaketa	13
3. EUSKARAZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA (EHK)	16
3.1 Probaren deskribapena	16
3.2 Galderak: informazioa	17
3.3 Emaitzak	19
3.3.1 Emaiza orokorrak	19
3.3.2 Emaitzak generoaren arabera	19
3.3.3 Konpetentzia mailak	20
3.4 Puntuazioen banaketa	21
4. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA (MK)	24
4.1 Probaren deskribapena	24
4.2 Galderak: informazioa	25
4.3 Emaitzak	26
4.3.1 Emaiza orokorrak	26
4.3.2 Emaitzak generoaren arabera	26
4.3.3 Konpetentzia mailak	26
4.4 Puntuazioen banaketa	28

5. ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA (ZK)	30
5.1 Probaren deskribapena	30
5.2 Galderak: informazioa	31
5.3 Emaitzak	33
5.3.1 Emaiza orokorrak	33
5.3.2 Emaitzak generoaren arabera	33
5.3.3 Konpetentzia mailak	33
5.4 Puntuazioen banaketa	35
6. INGELESEZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA (IHK)	36
6.1 Probaren deskribapena	36
6.2 Galderak: informazioa	37
6.3 Emaitzak	38
6.3.1 Emaiza orokorrak	38
6.3.2 Emaitzak generoaren arabera	39
6.3.3 Konpetentzia mailak	39
6.4 Puntuazioen banaketa	41
7. ALDAGAI SOZIOEKONOMIKO ETA KULTURALA	42
7.1 ISEK lortzea eta erabiltzea	42
7.1.1 Erregresio-zuzena: GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA	44
7.1.2 Erregresio-zuzena: EUSKARAZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA	45
7.1.3 Erregresio-zuzena: MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA	45
7.1.4 Erregresio-zuzena: ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA	46
7.1.5 Erregresio-zuzena: INGELESEZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA	46
7.2 ISEKaren banaketa	47
7.2.1 BANAKAKO PUNTUAZIOAK	47
7.2.2 IKASTETXEKO PUNTUAZIOAK	48

1. SARRERA

Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako zuzendari nagusiak maiatzaren 30eko emandako 350/2025 Ebazpenean xedatutakoaren arabera, Hezkuntza Departamentuak ebaluazio diagnostikoa ezarri du DBHko 2. mailako ikasle guztientzat. Ebaluazio honek ondoko ezaugarriak ditu:

- Zentsala da, hau da, ikasle guztiek egin behar dute.
- Konpetentziala da, hau da, oinarrizko konpetentziak neurtzen ditu.
- Informazioa ematen die ikasleei eta haien familiei.
- Prestakuntzazkoa da eta orientabideak ematen ditu, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

2025-2026 ebaluazio diagnostiko zentsalak honako hauek izan ditu ardatz: irakas-hizkuntzetako konpetentziak (gaztelaniazko eta euskarazko hizkuntza konpetentziak), matematikarako konpetentzia, zientziarako konpetentzia eta ingelesezko hizkuntza konpetentzia.

Ebaluazio Atalak prestatu ditu errendimendu-probak, horretarako eraturako irakasle-taldeek egindako lanetik abiatuta. Hala, proba horiek kanpoko probak dira ikastetxeentzat. Probak egun berberetan egin dira ikastetxe guztietan eta aldezturik ezarritako irizpideen arabera zuzendu dira; irizpideak Atalak eman dituenak izan dira.

Ekainaren hasieran eskuratu zituzten ikastetxeek banakako txostenak (ikasle bakoitzaren emaitzekin) eta ikastetxearen txostena. Banakako txostenak familiei igorri zitzaizkien ikasturtea bukatu zenean. Ikastetxearen txostenak datu estatistiko hauek ditu: batez besteko puntuazioa, desbideratze tipikoa, konpetentzia mailaren arabera ikasleen banaketa, galderetan zuzen erantzundakoen ehunekoak, ikastalde edo gela bakoitzeko batez besteko puntuazioa eta errendimenduaren eta ISEK aldagai sozioekonomikoaren arteko erregresioari buruzko informazioa. Ebaluatutako konpetentziaren arabera informazioa tauletan eta grafikoetan eman da.

Bestalde, ikastetxe bakoitzak aukera du azken urteetako emaitzen bilakaera aztertzeko, zuzendaritza taldeak Educa plataformaren bidez eskura dituen grafiko batzuen bitartez. Txosten horiek honako hauei buruzko informazioa ematen dute, konpetentzia bakoitzean: batez besteko puntuazio eraldatuak eta estimatu globalak zein ikastetxearen eta generoaren arabera bereizita, ekitate- eta bikaintasun-tasak, ISEK indizea, ikasleen banaketa ikasmailaka, eta asmatze-ehunekoak galderaka, eduki-multzoka eta ebaluatutako prozesuka, urteetan zehar izandako bilakaera kontuan hartuta.

Txosten honek aurreko informazioa osatzen du Nafarroako Foru Komunitatearen ikuspegi orokor batetik abiatuta; izan ere, ikasle guztiak eta proben ezaugarriak ardatz gisa hartzen ditu. Agiri honetan garrantzi handia du konpetentzia mailen esanahiak eta galdera bakoitzean ebaluatutako prozesuaren identifikazioak. Ikasleen puntuazioen banaketa islatzen duten histogramak aurkeztu dira eta banaketa normalarekiko konparazioa egin da.

Halaber, ataletako batek aztertzen du ikastetxeen batez besteko errendimenduaren eta ISEKaren batez besteko balioaren arteko korrelazioa. Konpetentzia bakoitzari dagokion erregresio-zuzena irudikatzen da eta horri esker ikus daiteke zenbateko inpaktua edo eragina duen aldagai sozioekonomiko eta kulturalak ikastetxeen batez besteko errendimenduan.

1.1. Ebaluazioaren izaera zentsala; salbuespenak eta egokitzapenak

2025-2026 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako 2. mailako matrikula, osotara, 7861 ikaslekoa izan zen. Guztira, Curriculum Egokituko Programa egiten ari diren 63 ikasleak sartzen dira. Ikasle horiek ohiko ikastetxeetan edo irabazi-asmorik gabeko erakundeek kudeatutako ikastetxeetan eskolatzen dira. Ikasle horiek ebaluazio diagnostikoko probetan lortutako emaitzak ez dira kontuan hartzen ebaluazioaren estatistika-emaitza orokorrak kalkulatzeko, eta, edonola ere, ez dute hizkuntza konpetentziako proba ingelesez egiten.

Horretaz gainera, beste hiru salbuespen-zerzati ezarri dira:

- a) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak, DBHko 2. maila Curriculum Egokitzapen Esanguratsuekin edo CBU curriculumarekin egiten ari direnak.
- b) Espainiako hezkuntza-sisteman berandu hasi diren ikasleak, baldin eta curriculum-desfase larria badute eta Curriculum Eguneratzeko Plana aplikatzen bazaie.
- c) Ikasteko hizkuntza ia ez jakiteagatik zailtasunak dituzten ikasleak.

Hiru irizpide horiek aplikatuta, ikasgela arruntetan eskolatutako 215 ikasle salbuetsi ziren, eta, beraz, proben azken populazioa 7583 ikasletan zehaztu zen. Proba bakoitza egiten den eguneko inguruabar zehatzek zehazten dute konpetentzia bakoitzean ebaluatutako ikasleen azken kopurua (datu zehatzak 1.2 atalean jasotzen dira).

Aurreko ikasturteetan egin zen bezala, Ebaluazio Atalak, Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabideen Zentroarekin (NHBBZ) koordinatuta, probak egiteko egokitzapen pertsonalizatuak prestatu dituzte mugitzeko eta/edo ikusteko desgaitasuna duten hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzat. Horretarako, harreman estua izan da ikastetxe bakoitzeko orientatzaileekin. Hurrengo taulan ageri dira probetarako egin diren egokitzapenak, hezkuntza premiaren mota aintzat hartuta.

	Egokitzapen mota	Ikastetxe eta ikasle kopurua
Ikusmen desgaitasuna	- Letra-tipoaren tamaina, lerroarte, koloreak...	5 ikastetxe / 5 ikasle
Entzumen desgaitasuna	- Audio egokituak beste ikasleenak baino errepikapen bat gehiago zuen.	6 ikastetxe / 8 ikasle
Mugimen desgaitasuna	- Formatu digitala, letra-tipoaren tamaina	2 ikastetxe / 2 ikasle

1.2. Matrikularen eta parte-hartzearen datuak

Ondoko tauletan azaltzen dira izaera zentsala eta egindako ebaluazioaren zabaltasuna ikusarazten duten datuak.

1.2.1 Datu globalak eta hizkuntza ereduaren arabera xehatutako datuak

	DATU GLOBALAK		A/G ereduak		B/D ereduak	
Matrikula	7861	% 100	6075	% 77,28	1786	% 22,72
CEP	63	% 0,80	61	% 0,78	2	% 0,03
Salbuetsitako ikasleak	215	% 2,74	200	% 2,54	15	% 0,19
Azken populazioa	7583	% 96,46	5814	% 73,96	1769	% 22,50
	Ikasle kopurua	Ikasleen %	Ikasle kopurua	Ikasleen %	Ikasle kopurua	Ikasleen %

1.2.2 Datuak generoaren arabera xehakatuta

	Neskak		Mutilak	
Matrikula	3751	% 47,72	4110	% 52,28
CEP	8	% 0,10	55	% 0,70
Salbuetsitako ikasleak	108	% 1,37	107	% 1,36
Azken populazioa	3635	% 46,24	3948	% 50,22
	Ikasle kopurua	Ikasleen %	Ikasle kopurua	Ikasleen %

1.2.3 Proba egin duten ikasleak, gaitasunen arabera banakatuta

	Proba egin duten ikasleen kopurua	%
Gaztelaniazko hizkuntza konpetentzia ⁽¹⁾	7348	% 93,47
Euskarazko hizkuntza konpetentzia ⁽²⁾	1750	% 97,98
Matematikarako konpetentzia ⁽¹⁾	7340	% 93,37
Zientziarako konpetentzia ⁽¹⁾	7368	% 93,73
Ingeleseko hizkuntza konpetentzia (3)	7349	% 94,24

⁽¹⁾ Ehunekoa kalkulatzeko, matrikula osoa hartzen da kontuan (7861 ikasle).

⁽²⁾ Ehunekoa kalkulatzeko, BD ereduaren matrikula osoa hartzen da kontuan (1786 ikasle).

⁽³⁾ Ehunekoa kalkulatzeko, a priori proba hori egin dezaketen ikasle guztiak hartzen dira kontuan (7861 ikasle – CEP egiten dutenak ez dira kontuan hartzen).

1.2.4 Bertaratu ez diren ikasleak eta proba egin duten ikasleak, gaitasunen arabera banakatuta

	Azken populazioa	Bertaratu ez diren ikasleen kopurua	Proba egin duten ikasleen kopurua	% ⁽¹⁾
Gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna	7583	235	7348	% 96,90
Euskarazko hizkuntza gaitasuna	1769	19	1750	% 98,93
Matematikarako gaitasuna	7583	243	7340	% 96,80
Zientziarako gaitasuna	7583	215	7368	% 97,16
Ingelesezkko hizkuntza gaitasuna	7577	228	7349	% 96,99

⁽¹⁾ Ehunekoa, kasu bakoitzean, azken populazioaren gainean kalkulatzen da.

2. GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA (GHK)

2.1 Probaren deskribapena

Probak bi zati ditu: lehenengoak irakurriaren ulermena neurtzen du, eta bigarrenak idatzizko ekoizpenerako konpetentzia.

Irakurtzeko konpetentzia askotariko testuen bidez neurtzen da, formatuari (jarraituak eta etenak), diskurtso-tipologiari (narratiba, azalpena...) edo generoari dagokienez. **Lehenengoa** testu misto etena eta azalpenezkoa da, zehazki *“La crisis climática y de la desigualdad en cifras”* izeneko infografia. **Bigarren** testua, *“La vida de Marta”*, jarraitua eta kontakizuneko da; *“Los besos en el pan”* eleberriaren zati bat da. **Hirugarrena** testua, Diario de Noticias-ek argitaratutako albiste bat da, egokitu dena, Iruñeko Planetarioa suntsitu zuen suteari buruz, hau da, narrazio eta kazetaritza arloko testu jarraitu bat.

Horietako bakoitzetik 6-11 galdera atera ziren, irakurriaren ulermena neurtzen duten 27 item guztira. Landutako atazek zerikusia dute ebaluazio diagnostikoan finkatutako bost irakurketa-prozesuekin. Item guztiek puntu 1 balio zuten.

Azken itema idatzizko ekoizpeneko ariketari dagokio, eta nolabaiteko lotura du irakurriaren ulermena osatzen duen azken testuarekin. Kasu honetan, ikasleek sute batek etendako Planetarioko eskola-bisita batetik abiatzen zen kontakizuna idatzi behar zuten, hainbat kontsigna zituen; galdera honek 10 puntu balio du.

Este curso la prueba se ha aplicado en formato digital, el alumnado leía los textos y contestaba a las preguntas de comprensión a través del ordenador. Las pautas para realizar la expresión escrita también aparecían en pantalla, pero el alumnado debía escribir su texto a mano en unos folios entregados a tal efecto.

Ondoko taulan, galdera bakoitzak izan duen asmatze-ehunekoa eta haren ezaugarriak agertzen dira: erantzun-motaren araberrako tipologia, esleitutako gehieneko puntuazioa, ebaluatutako irakurketa-prozesua, baita zer konpetentzia espezifiko eta oinarritzko jakintza dagozkion ere. Taulako galderen ordena probakoarenaren berbera da.

Zatia	Zk.	Item-mota	Gehieneko puntuazioa	asmaturakoen %	Konp. espezifikoa	Ebaluatutako prozesua	Oinarritzko jakintzak
Irakurriaren ulermena 1	1	Erantzun itxia	1	% 33,3	KE4	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	2	Erantzun itxia	1	% 32,0	KE4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	3	Erantzun itxia	1	% 49,0	KE4	Ulermen globala	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	4	Erantzun itxia	1	% 73,7	KE4	Hausnartzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	5	Erantzun itxia	1	% 16,4	KE4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 2	6	Erantzun itxia	1	% 38,8	KE4/KE8	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 2	7	Erantzun itxia	1	% 77,7	KE4/KE8	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 2	8	Erantzun itxia	1	% 52,9	KE4/KE8	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 2	9	Erantzun itxia	1	% 67,7	KE4/KE8	Aurkitzea	B3.4

Irakurriaren ulermena 2	10	Erantzun itxia	1	% 57,0	KE4/KE8	Hausnartzea	B3.4 / B4.1/ B4.4
Irakurriaren ulermena 2	11	Erantzun itxia	1	% 63,3	KE4/KE8	Hausnartzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 2	12	Erantzun erdieraikia	1	% 24,5	KE4/KE8	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 2	13	Erantzun erdieraikia	1	% 18,2	KE4/KE8	Interpretatzea	B3.4 / C2.2
Irakurriaren ulermena 2	14	Erantzun itxia	1	% 23,2	KE4/KE8	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 2	15	Erantzun itxia	1	% 35,1	KE4/KE8	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 2	16	Erantzun itxia	1	% 72,0	KE4/KE8	Hausnartzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	17	Erantzun itxia	1	% 44,1	KE4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	18	Erantzun itxia	1	% 87,2	KE4	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	19	Erantzun itxia	1	% 59,1	KE4	Hausnartzea	B3.4/ B4.1/ B4.4
Irakurriaren ulermena 3	20	Erantzun itxia	1	% 74,7	KE4	Hausnartzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	21	Erantzun erdieraikia	1	% 45,7	KE4	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	22	Erantzun itxia	1	% 10,6	KE4	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	23	Erantzun itxia	1	% 50,3	KE4	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	24	Erantzun itxia	1	% 36,4	KE4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	25	Erantzun itxia	1	% 45,2	KE4	Ulermen globala	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	26	Erantzun itxia	1	% 21,8	KE4	Interpretatzea	B3.4/ B4.1/ B4.4
Irakurriaren ulermena 3	27	Erantzun itxia	1	% 8,9	KE4	Ulermen globala	B3.4
Idatzizko adierazpena	28	Irekia	10	% 60,1	KE5 / KE9	Idatzizko adierazpena	B1.1/B2/ B3.5/ B4/D.1/ D.2/ D.3/ D.4/ D.5

2.2 Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta konplexuegiak iruditzen zaizkienetan huts egiten dute. Zailtasuna ondokoen arabera: da: erreferentziako testuaren konplexutasuna, aktibatu beharreko ataza edo prozesu mota edo itemak eskatzen duen erantzun mota (itxia, erdieraikia edo irekia; eskatzen duena gauzak hautatzea, identifikatzea, lotzea, ordenatzea, idaztea...). Aldi berean, elementu hauek guztiek konpetentzia mailak zehazten dituzte (haietan sartzen ditugu ikasleak). Gaztelaniazko hizkuntza konpetentziaren maila bakoitzaren azalpena **2.3.3** atalean dago.

Oker erantzundako galderek edo erantzun zuzenen ehunekorik txikiena duten galderek adierazten digute zein diren menderatu gabeko prozesuak eta atazak edo zein diren testurik zailenak. Hortaz hausnartu beharko litzateke irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan. Irakasleek galdera bakoitzaren azterketa xehatua dute Hezkuntza Departamentuaren webgunean eta Hezkuntza Departamentuaren barne-plataforman eskuragarri dauden zuzenketa-koadernoetan. Informazio honek emaitzak testuinguruan jartzen ditu eta ebaluazio diagnostikoak bultzatu behar duen prozesu hau -hausnartu eta hobekuntzak proposatzekoa-bideratu behar du.

Aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu galdera hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Ondoko taulak probako galderen **diskriminazio indizea** erakusten du:

Galdera	Diskriminazio indizea	Galdera	Diskriminazio indizea
1	0,632	15	0,659
2	0,641	16	0,632
3	0,633	17	0,650
4	0,629	18	0,631
5	0,642	19	0,632
6	0,632	20	0,629
7	0,635	21	0,628
8	0,633	22	0,630
9	0,632	23	0,636
10	0,643	24	0,634
11	0,634	25	0,633
12	0,635	26	0,642
13	0,653	27	0,646
14	0,633	28	0,666

2.3 Emaitzak

2.3.1 Emaiza orokorrak

Guztira 7348 ikaslek egin dute **Gaztelaniazko hizkuntza gaitasuna** proba. Hona hemen bildutako datu orokorrak:

Egindako probak, guztira:	7348
Lortutako gutxieneko puntuazioa:	0
Lortutako gehieneko puntuazioa:	34,00
Batez besteko puntuazioa:	18,50
Desbideratze tipikoa:	5,49


Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 0 izan da eta handiena 34,00 puntu.
- Desbideratze tipikoa 5,49 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 29,68), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun moderatua dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

2.3.2 Emaitzak generoaren arabera

Atal honetan, **Gaztelaniazko hizkuntza konpetentziaren** proban lortutako emaitzak erakusten dira, ikasleen generoaren arabera bereizita.

	Zenbakia	Batez besteko puntuazioa	Desbideratze tipikoa
Neskak	3514	19,77	5,08
Mutilak	3834	17,34	5,60
Nafarroa	7348	18,50	5,49



Ikus daitekeenez, neskek lortutako puntuazioa mutilek lortutakoa baino 2,43 puntu handiagoa da: alde hori altutzat jo daiteke, probaren desbideratze tipikoaren herenaren parekoa delako (5,49). Halaber, emakumezkoek lortutako emaitzen dispersioa gizonezkoek lortutakoena baino txikiagoa da.

2.3.3 Konpetentzia mailak

Ikasleek zuzen erantzun dituzten galderak aztertuz, jakin daiteke zer dakiten egiten eta zer ez dakiten ongi egiten. Horrela, lau konpetentzia maila ezartzen dira: *1. maila, 2. maila, 3. maila eta +3. maila*.

Horren arabera, ulertzen da 1. eta 2. mailetako ikasleek ez dutela lortu konpetentzia, eta 3. edo +3. mailakoek espero den konpetentzia maila dutela.

Oro har, maila bakoitzari lotutako konpetentziak honako hauek dira:


1. maila	2. maila	3. maila	+3. maila
Maila honetako ikasleak gai dira informazio esplizitua eta lokalizatua aurkitzeko. Ideien arteko konexio sinpleak egiten dituzte, ez dute inferentziarik sortzen. Gai nagusia ezagutzen dute, baina oso agerikoa denean edo narrazio-testuetan bakarrik. Zailtasunak dituzte testuaren tesia edo egilearen asmoa identifikatzeko. Zaila egiten zaie informazioa kontrastatzea eta bere kanpo-ezagutza testuari aplikatzea. Ongi moldatzen dira lokalizazio-zereginei buruzko galdera itxietan edo ireki erraz-errazetan. Ongi moldatzen dira narrazio-testuetan, eta okerrago argudio- eta azalpen-testuetan. ----- Haren adierazpen idatzian koherentzia- eta kohesio-arazoak daude, eta gramatika-akatsak egiten ditu (komunztadura-arazoak, preposizioen erabilera...). Ortografia akats larriak ditu.	Maila honetako ikasleak gai dira informazio literala edo sinonimoekin adierazia aurkitzeko, erabat lokalizatuta ez dagoena barne. Behe mailako inferentziak egiten dituzte, baina arazoak dituzte ideiak interpretatzeko edo konektatzeko, inferentzia konplexua denean, eta datuak kontrastatzeko. Gai dira testu baten ideia nagusia eta egilearen asmoa ezagutzeko narrazio- eta azalpen-testuetan, agerikoa denean eta ñabardura gutxi daudenean, baina zailtasunak dituzte tesia identifikatzeko testu konplexuetan. Zailtasunak dituzte testuari kanpo-ezagutza aplikatzeko, haren edukia eta forma ebaluatu behar dituztenean. Ongi moldatzen dira galdera itxietan edo irekietan, baina ez ideiak lotu edo ordenatu behar diren galderetan. Arazoak dituzte informazio asko ematen den testuekin. ----- Idatzizko adierazpenak testuaren barne-kohesioko akatsak ditu, komunztadurazkoak, eta esaldiek egitura oso oinarritzak dute. Ortografia akats ugari ditu.	Maila honetako ikasleak gai dira informazio literala edo sinonimoekin adierazia aurkitzeko, erabat lokalizatuta ez dagoena edo esplizituki adierazita ez dagoena barne. Inferentzia konplexuagoak egiten dituzte, eta zati baten edukia interpretatzen dute, testuinguru zabalagoa kontuan hartuta. Erraz ezagutzen dituzte testuaren ideia nagusia edo tesia eta egilearen asmoaren ñabardurak, testu mota edozein delarik ere. Gai dira testuaren edukia eta forma baloratzeko, testuari kanpo-ezagutzak aplikatuz. Gai dira askotariko zereginei arrakastaz aurre egiteko, ideiak lotu edo ordenatzea eskatzen dutenak barne. Arazorik gabe moldatzen dira mota guztietako testuetara. ----- Idatzizko konpetentziari dagokionez, gai dira, oro har, testu kohesionatuak eta koherenteak sortzeko, ulermena zailtzen ez duten akatsekin; erregistro egokia erabiltzen dute. Ortografia-akatsak, batez ere, ohikoak ez diren hitzetan gertatzen dira, eta ez dute komunikazioa eragozten.	Maila honetako ikasleak gai dira informazioa bilatzeko, nahiz eta erabat sakabanatuta eta modu ez-esplizituan adierazita egon. Inferentzia konplexuak egiten dituzte, eta zati baten edukia interpretatzen dute, testuinguru zabalagoa kontuan hartuta. Testuaren tesi nagusia eta egilearen asmoa ezagutzen dituzte. Testuaren azpiko ikuspegia eta jarrerak ulertzen dituzte, item mota eta tipologia guztietan. Gaitasun bikaina erakusten dute irakurritakoa kanpo-ezagutzekin lotzeko. ----- Sortutako testuak kohesioa du, argia da eta gaiaren garapen ona du. Maila hau aurrekoarengandik bereizten da; izan ere, konplexutasun eta aberastasun handiagoko lexiko eta gramatika mekanismoak erabiltzen dira, ez dago akatsik ortografiari eta komunztadurari dagokionez, eta hizkuntza zehatza eta egokia erabiltzen da.

Mailen zenbakizko zehaztapena

Ikasleak maila jakin bati esleitzea proban lortzen den puntuazioaren arabera da.

Hurrengo taulan gaitasun maila bakoitza zehazten duten puntuazio-tarteak eta maila bakoitzean dagoen Nafarroako ikasleen ehunekoa islatzen dira:

	Puntuazio-tarteak	Ikasleen ehunekoa
1. maila	[0, 11.5)	% 9,95
2. maila	[11.5, 16)	% 19,86
3. maila	[16, 25.5)	% 59,44
+3. maila	[25.5, 34]	% 10,75



Alderdi azpimarragarriak:


- Hamar ikasletik ia zazpik (% 70,19) 3. maila edo +3. maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatze mailari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko. Hamar ikasletik batek baino zertxobait gehiagok (% 10,75) bikaintasun maila erdietsi du.
- Hamar ikasletik batek (% 9,95) neurri bereziak behar ditu, maila apalenean dagoelako.
- Bost ikasletik bat (% 19,86) tarteko egoeran dago, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

2.4 Puntuazioen banaketa

Atal honetan, **Gaztelaniazko hizkuntza konpetentzia** proban lortutako zuzeneko puntuazioen banaketari erreparatuko diogu.

Ezkerreko taulan, proba honetan behatutako parametro estatistikoak agertzen dira, eta grafikoak lortutako zuzeneko puntuazioen banaketa islatzen du:

	GHK
Egindako probak	7348
Batez besteko puntuazioa	18,50
Desbideratze tipikoa	5,49
Asimetria	-0,27
Kurtosia	-0,07



Alderdi azpimarragarriak:

- Banaketa normalarekin alderatuta, puntuazioen banaketa izan da asimetrikoa ezker aldetik, eta zerbait kamutsagoa.
- Fisherren asimetria koefizientea $-0,27$ da, eta hori da asimetria ezkerrekoa izatearen arrazoia. Izan ere, batez bestekotik beherako puntuazioetan ikusten da guztizko maiztasuna goikoetan baino txikiagoa dela (% 49,9 vs % 50,1), eta aldakortasun handiagoa.
- Fisherren kurtosi koefizientea $-0,07$ da; horra zergatik den kamutsagoa (banaketa platikurtikoa), hau da, puntuazioen kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan.

3. EUSKARAZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA (EHK)

3.1 Probaren deskribapena

Probak bi zati ditu: lehenengoak irakurriaren ulermena neurtzen du, eta bigarrenak idatzizko ekoizpenerako konpetentzia.

Irakurtzeko konpetentzia askotariko testuen bidez neurtzen da, formatuari (jarraituak eta etenak), diskurtso-tipologiari (narratiba, azalpena...) edo generoari dagokienez. Aurten, lehenbiziko testua, “*Iluntasuna*”, testu jarraitua eta narratiboa izan da, *Itzel* liburuaren zati bat da. Bigarrenak irakurmen-ulermenak hiru testu ditu, elkarrekiko independenteak, baina gai berari buruzkoak: gastronomia. Hirugarrena, “*Mo erakusketa*”, Bernardo Atxagaren eleberri ezaguneko pertsonaia den Mori buruzko eleberri grafiko baten irudi-erakusketa bati buruzko diptiko baten transkripzioa da.

Horietako bakoitzetik 7-11 galdera atera ziren, irakurriaren ulermena neurtzen duten 26 item guztira. Horietako bi 2 punturekin baloratu ditu, puntuazio partzialak onartuta, eta gainerakoak puntu batekin. Landutako atazek zerikusia dute ebaluazio diagnostikoan finkatutako bost irakurketa prozesurekin. Halaber, ahalegina egin da galderen tipologia askotarikoa izan dadin.

Azken itema idatzizko ekoizpeneko ariketari dagokio, eta 10 puntu balio zuen. Kasu horretan, ikasleek ikastetxeko zuzendariari email bat idatzi behar zioten Mo-ri buruzko erakusketara joateko nahia helarazteko.

Ondoko taulan, galdera bakoitzak izan duen asmatze-ehunekoa eta haren ezaugarriak agertzen dira: erantzun-motaren arabera tipologia, esleitutako gehieneko puntuazioa, ebaluatutako irakurketa-prozesua, baita zer konpetentzia espezifiko eta oinarritzko jakintza dagozkion ere. Galderen ordena bera da taulan eta probako koadernoan.

Zatia	Zk.	Item-mota	Gehieneko puntuazioa	Asmatutakoen %	Konp. espezifikoa	Ebaluatutako prozesua	Oinarritzko jakintzak
Irakurriaren ulermena 1	1	Itxia	1	% 72,4	KE 4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	2	Itxia	1	% 51,7	KE 4	Hausnartzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	3	Erdieraikia	1	% 44,3	KE 4	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	4	Itxia	1	% 51,3	KE 4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	5	Itxia	1	% 70,5	KE 4	Hausnartzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	6	Itxia	1	% 46,0	KE 4	Interpretatzea	B1.1/ B3.4
Irakurriaren ulermena 1	7	Erdieraikia	1	% 72,7	KE 4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	8	Itxia	1	% 53,9	KE 4	Hausnartzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	9	Itxia	1	% 37,9	KE 4	Integratzea: ulermen globala	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	10	Erdieraikia	1	% 42,4	KE 4	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 1	11	Erdieraikia	2	% 52,4	KE 4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 2	12	Itxia	1	% 62,1	KE 4	Integratzea: ulermen globala	B3.4

Irakurriaren ulermena 2	13	Itxia	1	% 59,9	KE 4	Integratzea: ulermen globala	B3.4/ B1.1.
Irakurriaren ulermena 2	14	Itxia	1	% 67,4	KE 4	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 2	15	Itxia	1	% 42,5	KE 4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 2	16	Erdieraikia	1	% 26,9	KE 4	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 2	17	Itxia	1	% 53,8	KE 4/ KE 9	Hausnartzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 2	18	Itxia	1	% 63,1	KE 4/ KE 9	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	19	Erdieraikia	1	% 84,2	KE	Aurkitzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	20	Erdieraikia	1	% 60,5	KE 4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	21	Itxia	1	% 80,2	KE 4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	22	Erdieraikia	1	% 57,7	KE 4	Integratzea: ulermen globala	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	23	Itxia	1	% 58,7	KE 4	Interpretatzea	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	24	Itxia	1	% 46,1	KE 4	Integratzea: ulermen globala	B3.4
Irakurriaren ulermena 3	25	Itxia	1	% 65,8	KE 4	Interpretatzea	B3.4 / B2.5/
Idatzizko adierazpena	26	Irekia	10	% 62,3	KE 5/ KE 9	Idatzizko adierazpena	B2.5/ B3.5./ B4/ B2/ D7

3.2 Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta konplexuegiak iruditzen zaizkienetan huts egiten dute. Zailtasuna ondokoen arabera: da: erreferentziako testuaren konplexutasuna, aktibatu beharreko ataza edo prozesu mota edo itemak eskatzen duen erantzun mota (itxia, erdieraikia edo irekia; eskatzen duena gauzak hautatzea, identifikatzea, lotzea, ordenatzea, idaztea...). Aldi berean, elementu hauek guztiek konpetentzia mailak zehazten dituzte (haietan sartzen ditugu ikasleak). Irakurketa maila bakoitzaren azalpena 3.3.3 atalean dago.

Oker erantzundako galderek edo erantzun zuzenen ehunekorik txikiena duten galderek adierazten digute zein diren menderatu gabeko prozesuak eta atazak edo zein diren testurik zailenak. Hortaz hausnartu beharko litzateke irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan. Irakasleek galdera bakoitzaren azterketa xehatua dute Hezkuntza Departamentuaren webgunean eta Hezkuntza Departamentuaren barne-plataforman eskuragarri dauden zuzenketa-koadernoetan. Informazio honek emaitzak testuinguruan jartzen ditu eta ebaluazio diagnostikoak bultzatu behar duen prozesu hau -hausnartu eta hobekuntzak proposatzekoa- bideratu behar du.

Aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu item hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi

du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Ondoko taulak probako galderen **diskriminazio indizea** erakusten du:

Galdera	Diskriminazio indizea
1	0,20
2	0,24
3	0,39
4	0,21
5	0,05
6	0,25
7	0,22
8	0,16
9	0,12
10	0,34
11	0,52
12	0,13
13	0,38

Galdera	Diskriminazio indizea
14	0,36
15	0,15
16	0,29
17	0,29
18	0,32
19	0,29
20	0,24
21	0,20
22	0,25
23	0,46
24	0,26
25	0,10
26	0,31

3.3 Emaitzak

3.3.1 Emaiza orokorrak

Guztira 1821 ikaslek egin dute **Euskarazko hizkuntza konpetentzia** proba. Hona hemen bildutako datu orokorrak:

Egindako probak, guztira:	1750
Lortutako gutxieneko puntuazioa:	2,00
Lortutako gehieneko puntuazioa:	36,50
Batez besteko puntuazioa:	21,57
Desbideratze tipikoa:	6,26


Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 2,00 izan da eta handiena 36,50 puntu.
- Desbideratze tipikoa 6,26 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 29,02), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun moderatua dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

3.3.2 Emaitzak generoaren arabera

Atal honetan, **Euskarazko hizkuntza konpetentzia** proban lortutako emaitzak erakusten dira, ikasleen generoaren arabera bereizita.

	Zenbakia	Batez besteko puntuazioa	Desbideratze tipikoa
Neskak	878	23,23	5,74
Mutilak	872	19,90	6,32
Nafarroa	1750	21,57	6,26



Ikus daitekeenez, neskek lortutako puntuazioa mutilek lortutakoa baino 3,33 puntu handiagoa da: alde hori altutzat jo daiteke, probaren desbideratze tipikoaren erdia baino handiagoa baita (6,26). Halaber, emakumezkoek lortutako emaitzen dispersioa gizonezkoek lortutakoena baino txikiagoa da.

3.3.3 Konpetentzia mailak

Ikasleek zuzen erantzun dituzten galderak aztertuz, jakin daiteke zer dakiten egiten eta zer ez dakiten ongi egiten. Horrela, lau konpetentzia maila ezartzen dira: *1. maila, 2. maila, 3. maila eta +3. maila.*

Horren arabera, ulertzen da 1. eta 2. mailetakoa ikasleek ez dutela lortu konpetentzia, eta 3. edo +3. mailakoek espero den konpetentzia maila dutela.

Oro har, maila bakoitzari lotutako gaitasunak honako hauek dira:


1. maila	2. maila	3. maila	+3. maila
Maila honetako ikasleak informazio esplizitua eta lokalizatua aurkitzeko gai dira. Ideen arteko lotura bakunak egiten ditu, ez du inferentziarik sortzen. Gai nagusia oso agerikoa den edo testu narratiboak diren bakarrik ezagutzen du. Testuaren tesia edo egilearen asmoa identifikatzeko zailtasunak ditu. Zaila egiten zaio informazioa kontrastatzea eta kanpoko ezagutza testuan aplikatzea. Lokalizazio-atazei buruzko galdera itxi edo ireki oso errazak ondo egiten ditu. Ondo moldatzen da narrazio-testuetan, eta okerrago argudio- eta azalpen-testuetan. ----- Idatzizko adierazpenean koherentzia- eta kohesio-arazoak ditu, eta gramatika-akatsak egiten ditu (komunztadura-arazoak, deklinabide-atzizkien erabilera...) edo gaztelaniazko hitz asko erabiltzen ditu. Ortografia-akats larriak egiten ditu.	Maila honetako ikasleek informazio literala edo sinonimoekin adierazitakoa aurki dezakete, guztiz lokalizatuta ez dagoena barne. Maila baxuko inferentziak egiten dituzte, baina arazoak ditu ideiak interpretatzeko edo konektatzeko, inferentzia konplexua bada, bai eta datuak kontrastatzeko ere. Testu baten ideia nagusia eta narrazio- eta azalpen-testuetan egilearen asmoa antzeman dezake, agerikoa bada eta ñabardura gutxi baditu, baina zailtasunak ditu testu konplexuen tesia identifikatzeko. Testuari kanpoko ezagutza aplikatzeko zailtasunak ditu, testuaren edukia eta forma ebaluatzeko unean. Ondo moldatzen da galdera itxietan edo irekietan, baina ez ideiak lotu edo ordenatzeko. Arazoak ditu informazio asko eskaintzen duten testuekin. ----- Idatzizko adierazpenean testuaren barne-kohesioak akatsak egiten ditu, komunztadurakoak, eta perpausek oso oinarritzko egitura dute. Ortografia-akats asko du.	Maila honetako ikasleek informazio literala edo sinonimoekin adierazitakoa aurki dezakete, guztiz lokalizatuta ez dagoena edo esplizituki adierazi gabe dagoena barne. Inferentzia konplexuagoak egiten dituzte, zati baten edukia interpretatzen du testuinguru zabalena kontuan hartuta. Erraz ezagutzen ditu testuaren ideia nagusia edo tesia eta egilearen asmoaren ñabardurak edozein testu motatan. Testuaren edukia eta forma baloratzeko gai da, eta testutik kanpoko ezagutzak aplikatzen ditu. Askotariko zereginiei arrakastaz aurre egiteko gai da, ideiak lotu edo ordenatzea eskatzen dutenak barne. Arazorik gabe sartzen da mota guztietako testuetara. ----- Oro har, testu kohesionatuak eta koherenteak sortzeko gai da, ulermena zailtzen ez duten akatsekin; erregistro egokia erabiltzen du. Ortografia-akatsak ohikoak ez diren hitzetan gertatzen dira batez ere, eta ez dute komunikazioa eragozten.	Maila honetako ikasleak informazioa bilatzeko gai dira, nahiz eta erabat sakabanatuta eta modu ez-esplizituan adierazita egon. Inferentzia konplexuak egiten ditu, zati baten edukia interpretatzen du testuinguru zabalena kontuan hartuta. Testuaren tesi nagusia eta egilearen asmoa ezagutzen ditu. Testuaren azpiko ikuspegia eta jarrerak ulertzen ditu item mota eta tipologia guztietan. Irakurtzen duena kanpoko ezagutzekin lotzeko gaitasun bikaina erakusten du. ----- Sortzen duen testua kohesionatuta dago, argia da eta gaien progresioa ona da. Maila hori aurrekoarekiko bereizten da konplexutasun eta aberastasun handiagoko mekanismo lexiko eta gramatikalen erabilera, eta akats ortografikorik eta komunztadura akatsik ez izatean. Hizkuntzaren erabilera zehatz eta egokia egiten du.

Mailen zenbakizko zehaztapena

Ikasleak maila jakin bati esleitzea proban lortzen den puntuazioaren arabera da.

Hurrengo taulan gaitasun maila bakoitza zehazten duten puntuazio-tarteak eta maila bakoitzean dagoen Nafarroako ikasleen ehunekoa islatzen dira:

	Puntuazio-tarteak	Ikasleen ehunekoa
1. maila	[0, 13)	% 9,71
2. maila	[13, 18.3)	% 20,00
3. maila	[18'3, 29.8)	% 60,23
+3. maila	[29.8, 36.5]	% 10,06



Alderdi azpimarragarriak:


- Hamar ikasletik zazpik (% 70,29) 3. maila edo +3. maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatzeko mailari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko. Hamar ikasletik batek (% 10,01) erdietsi du bikaintasun maila.
- Ia hamar ikasletik batek baino zertxobait gutxiagok (% 9,71) neurri bereziak behar ditu, behe-beheko mailan dagoelako.
- Bost ikasletik bat (% 20,00) tarteko egoeran dago, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

3.4 Puntuazioen banaketa

Atal honetan, **Euskarazko hizkuntza kkonpetentzia** proban lortutako zuzeneko puntuazioen banaketari erreparatuko diogu.

Ezkerreko taulan, proba honetan behatutako parametro estatistikoak agertzen dira, eta grafikoak lortutako zuzeneko puntuazioen banaketa islatzen du:

	EHK
Egindako probak	1750
Batez besteko puntuazioa	21,57
Desbideratze tipikoa	6,26
Asimetria	-0,24
Kurtosia	-0,40



Alderdi azpimarragarriak:

- Banaketa normalarekin alderatuta, puntuazioen banaketa izan da zertxobait asimetrikoa ezker aldetik, eta zerbait kamutsagoa.
- Fisherren asimetria koefizientea -0,24 da, eta hori da asimetria ezkerrekoa izatearen arrazoia. Izan ere, batez bestekotik beherako puntuazioetan ikusten da guztizko maiztasuna goikoetan baino txikiagoa dela (% 48 vs % 52), eta aldakortasun handiagoa.
- Fisherren kurtosi koefizientea -0,40 da; horra zergatik den kamutsagoa (banaketa platikurtikoa), hau da, puntuazioen kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan.

4. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA (MK)

4.1 Probaren deskribapena

Hiru estimulak edo egoerak osatu dute proba: *“Ikastetxearen urteurrena”*, *“Legoko robota”* eta *“Kotxez aldatu”*. Lehenengoan 6 item egin ziren, bigarrenean 10, eta hirugarrenean, 7, guztira 23 galdera, guztiak puntu batekin baloratuta, bi izan ezik, 2 puntu balio zutenak (gehieneko puntuazioa, beraz, 25 puntukoa da).

Aurten, Matematikarako Konpetentziaren proba formatu digitalean aplikatu da, hau da, ikasleek enuntziatuak ordenagailuaren bidez eskuratzen zituzten, eta erantzun zuzena ordenagailuaren bidez aukeratzen zuten, hiru galderatan izan ezik: 6., 13. eta 20. galderetan planteamendua eta ebazpena paperean egin behar izan zuten ikasleek.

23 galderei zegozkien atazak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko matematika prozesuekin daude loturik eta curriculumeko eduki-multzoetakoak dira. Hurrengo taulan erakusten dira probako galderen zenbait ezaugarri: tipologia (irekia edo itxia), gehienez esleitutako puntuazioa, ebaluatutako prozesu matematikoa, eta galdera bakoitza zein oinarritzko jakintzari dagokion. Taulako galderen ordena probakoaren ordena bera da.

Zk.	Item-mota	Gehieneko puntuazioa	asmatuta koen %	Konp. espezifiko	Ebaluatutako prozesua	Oinarritzko jakintzak
1	Itxia	1	% 56,2	Arrazoitzea eta probatzea	Arrazoitzea eta hausnartzea	Neurriaren zentzua
2	Itxia	1	% 59,8	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea	Neurriaren zentzua
3	Itxia	1	% 54,6	Loturak	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Zentzu espaziala
4	Itxia	1	% 38,0	Problemak ebaztea	Arrazoitzea eta hausnartzea	Zentzu aljebraikoa
5	Itxia	1	% 43,8	Arrazoitzea eta probatzea	Arrazoitzea eta hausnartzea	Zentzu estokastikoa
6	Irekia	2	% 46,0	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea	Zentzu aljebraikoa
7	Itxia	1	% 61,5	Arrazoitzea eta probatzea	Arrazoitzea eta hausnartzea	Zenbakizko zentzua
8	Itxia	1	% 73,9	Komunikazioa eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Zentzu estokastikoa
9	Itxia	1	% 39,5	Arrazoitzea eta probatzea	Arrazoitzea eta hausnartzea	Zentzu espaziala
10	Itxia	1	% 47,6	Loturak	Aztertzea eta aplikatzea	Neurriaren zentzua
11	Itxia	1	% 34,2	Komunikazioa eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Zentzu aljebraikoa
12	Itxia	1	% 31,7	Loturak	Aztertzea eta aplikatzea	Zentzu espaziala
13	Irekia	2	% 28,9	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea	Zentzu espaziala
14	Itxia	1	% 38,1	Arrazoitzea eta probatzea	Arrazoitzea eta hausnartzea	Zentzu aljebraikoa
15	Itxia	1	% 43,2	Arrazoitzea eta probatzea	Aztertzea eta aplikatzea	Zenbakizko zentzua
16	Itxia	1	% 55,1	Komunikazioa eta irudikapena	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Neurriaren zentzua
17	Irekia	1	% 19,5	Problemak ebaztea	Aztertzea eta aplikatzea	Zenbakizko zentzua

18	Itxia	1	% 64,0	Problemak ebaztea	Arrazoitzea eta hausnartzea	Zenbakizko zentzua
19	Itxia	1	% 59,3	Komunikazioa eta irudikapena	Arrazoitzea eta hausnartzea	Zentzu estokastikoa
20	Irekia	1	% 18,5	Problemak ebaztea	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Zentzu aljebraikoa
21	Itxia	1	% 45,5	Problemak ebaztea	Ezagutzea eta erreproduzitzea	Zenbakizko zentzua
22	Itxia	1	% 39,9	Komunikazioa eta irudikapena	Aztartzea eta aplikatzea	Zentzu aljebraikoa
23	Itxia	1	% 42,2	Problemak ebaztea	Aztartzea eta aplikatzea	Zenbakizko zentzua

4.2 Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta konplexuegiak iruditzen zaizkienetan huts egiten dute. Zailtasuna erreferentziatzko edukiaren arabera da, esparru bat baino gehiago nahasten ote dituen, zer prozesu mota ebaluatzen den, informazioa nola aurkezten den (zenbakietan, benetako egoeretan, modu esplizituan gutxiago edo gehiago, grafikoetan, plano batean...), zein galdera mota den (itxia edo irekia, urrats bakarra edo gehiago egin behar diren...). Aldi berean, elementu hauek guztiek konpetentzia mailak zehazten dituzte (haitan sartzen ditugu ikasleak). Matematikarako konpetentziaren maila bakoitzaren azalpena 4.3. atalean dago.

Akatsek edo erantzun zuzenen ehunekorik txikiena duten galderek adierazten digute zein diren menderatu gabeko prozesuak eta atazak. Hortaz hausnartu beharko litzateke irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan. Irakasleek galdera bakoitzaren analisi xehatua dute zuzenketa-koadernoetan. Informazio honek emaitzak testuinguruan jartzen ditu eta aukera ematen du ebaluazio diagnostikoak bultzatu behar dituen hausnarketa eta hobekuntza-proposamenak bideratzeko.

Aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu galdera hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Ondoko taulak probako galderen **diskriminazio indizea** erakusten du:

Galdera	Diskriminazio indizea	Galdera	Diskriminazio indizea
1	0,664	13	0,634
2	0,644	14	0,648
3	0,636	15	0,651
4	0,655	16	0,648
5	0,656	17	0,637
6	0,615	18	0,633
7	0,638	19	0,649
8	0,644	20	0,633
9	0,646	21	0,658
10	0,656	22	0,656
11	0,647	23	0,647
12	0,655		

4.3 Emaitzak

4.3.1 Emaiza orokorrak

Guztira 7340 ikaslek egin dute **Matematikarako konpetentzia** proba. Hona hemen bildutako datu orokorrak:

Egindako probak, guztira:	7340
Lortutako gutxieneko puntuazioa:	0,75
Lortutako gehieneko puntuazioa:	25,00
Batez besteko puntuazioa:	11,06
Desbideratze tipikoa:	4,00


Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 0,75 izan da eta handiena 25 puntu.
- Desbideratze tipikoa 4,00 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 36,16), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun altua dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

4.3.2 Emaitzak generoaren arabera

Atal honetan, **Matematikarako konpetentzia** proban lortutako emaitzak erakusten dira, ikasleen generoaren arabera bereizita.

	Zenbakia	Batez besteko puntuazioa	Desbideratze tipikoa
Neskak	3517	10,64	3,79
Mutilak	3823	11,45	4,14
Nafarroa	7340	11,06	4,00



Ikus daitekeenez, mutilek lortutako batez besteko puntuazioa neskek lortutakoa baino 0,81 puntu handiagoa da: alde hori arintzat jo daiteke, probaren desbideratze tipikoaren laurdena baino txikiagoa baita (4,00). Mutilek lortutako batez bestekoa neskek lortutakoa baino handiagoa bada ere, neskek lortutako emaitzen dispersioa mutilek lortutakoena baino txikiagoa da.

4.3.3 Konpetentzia mailak

Ikasleek zuzen erantzun dituzten galderak aztertuz, jakin daiteke zer dakiten egiten eta zer ez dakiten ongi egiten. Horrela, lau gaitasun maila ezartzen dira: *1. maila, 2. maila, 3. maila eta +3. maila*.

Horren arabera, ulertzen da 1. eta 2. mailetakoko ikasleek ez dutela lortu konpetentzia, eta 3. edo +3. mailakoek espero den gaitasun maila dutela.

Oro har, maila bakoitzari lotutako gaitasunak honako hauek dira:


1. maila	2. maila	3. maila	+3. maila
Matematikarako gaitasunaren maila baxua erakusten du, espero baino askoz baxuagoa, galdera gutxi erantzuten baititu zuzen. Zailtasun handiak ditu planteatutako egoera ulertzeko edo problema matematikoki planteatzea eta ebaztea ahalbidetzen duten informazioa eta datu garrantzitsuak identifikatzeko. Ez da gai problema matematikoak ebazteko ondoz ondoko bi urrats edo eragiketa baino gehiago sekuentziatzeko. Batzuetan, ageriko informazioa ateratzen du hainbat irudikapenetatik (grafikoak, marrazkiak...), baina arazoak izaten ditu planteatutako egoerak hainbat datu eta zentzu matematiko erlazionatzea eskatzen duenean. Zailtasunak ditu zatikizko zenbakiak adierazitako datuak maneiatzeko. Ez du behar bezala baloratzen soluzioa sinesgarria den, eta ez da gai prozesu bati buruz argudiatzeko edo matematikoki arrazoitzeko	Konpetentziaren maila espero baino txikiagoa dela erakusten du. Planteatutako egoerak ulertzen ditu edo informazio eta datu garrantzitsuak identifikatzen ditu, baina ez du egoera matematikoki modu egokian planteatzen edo ebazten. Planteatu eta ebatzi egiten ditu bi urrats edo eragiketa baino gehiago eskatzen dituzten problema matematiko batzuk. Hainbat irudikapeni (grafikoak, marrazkiak...) buruzko oinarritzko egoerak ebazteko gai da, baina zailtasunen bat du egoera praktikoak direnean edo beste zentzu matematiko batzuk konbinatzen direnean. Zailtasunak ditu zatikizko zenbakiak adierazitako datuak maneiatzeko. Soluzioa sinesgarria den balora dezake, baina ez da gai matematikoki argudiatzeko edo arrazoitzeko.	Ikasturte honetan espero denaren arabera gaitasuna menderatzen duela erakusten du. Egoerak ulertzen ditu eta behar bezala egin ohi duen problemaren planteamendu matematikoari ekiteko beharrezko informazioa identifikatzen du. Bi urrats edo eragiketa baino gehiago eskatzen dituzten problema matematikoak planteatu eta ebazten ditu, baita testuinguru errealei dagozkienak ere. Ondo interpretatzen ditu irudikapenak (grafikoak, marrazkiak...), biziaren errealeko egoeren tipologia askotarikoa barne. Erraz moldatzen da, nahiz eta informazioa beste zentzu matematiko batzuekin konbinatu behar izan. Zuzen erabiltzen ditu zatikizko zenbakiak adierazitako datuak. Arrazoibide matematikoa erabiltzen du bere lanketei eta gai orokorrei buruzko azalpenak eta argudioak emateko.	Doitasun-maila handiarekin menderatzen du konpetentzia. Oso ondo ulertzen du planteatzen zaion egoera, eta oso ondo matematizatzen du, erraz identifikatzen ditu datu garrantzitsuak eta behar dituenak. Hainbat urrats edo eragiketa eskatzen dituzten problema matematikoak ebazten ditu, baita hainbat zentzu matematiko konbinatzen badituzte eta testuinguru errealei erreferentzia egiten badiete ere. Problema konplexuak zehaztasunez ebazten ditu, eta horien informazioa hainbat irudikapenen bidez ematen da (grafikoak, marrazkiak...). Zuzen erabiltzen ditu zatikizko zenbakiak adierazitako datuak. Arrazoibide matematikoa erabiltzen du, bai bere lanketei bai gai orokorrei buruzko azalpenak eta argudioak emateko. Soluzioa beste testuinguru batzuetan aplikatzeko gai da.

Mailen zenbakizko zehaztapena

Ikasleak maila jakin bati esleitzea proban lortzen den puntuazioaren arabera da.

Hurrengo taulan gaitasun maila bakoitza zehazten duten puntuazio-tarteak eta maila bakoitzean dagoen Nafarroako ikasleen ehunekoa islatzen dira:

	Puntuazio-tarteak	Ikasleen ehunekoa
1. maila	[0.75, 6)	% 8,50
2. maila	[6, 8.5)	% 18,61
3. maila	[8.5, 16.5)	% 62,85
+3. maila	[16.5, 25]	% 10,04



Alderdi azpimarragarriak:


- Ia hamar ikasletik ia zazpik (% 72,89) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatze mailari dagozkion matematika prozesuak gauzatzeko. Hamar ikasletik batek (% 10,04) erdietsi du bikaintasun maila.
- Hamabi ikasletik batek (% 8,50) neurri bereziak behar ditu, maila apalenean dagoelako.
- Bost ikasletik bat (% 18,61) tarteko egoeran dago, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

4.4 Puntuazioen banaketa

Atal honetan, **Matematikarako konpetentzia** proban lortutako zuzeneko puntuazioen banaketari erreparatuko diogu.

Ezkerreko taulan, proba honetan behatutako parametro estatistikoak agertzen dira, eta grafikoak lortutako zuzeneko puntuazioen banaketa islatzen du:

	MG
Egindako probak	7340
Batez besteko puntuazioa	11,06
Desbideratze tipikoa	4,00
Asimetria	0,36
Kurtosia	-0,15



Alderdi azpimarragarriak:

- Banaketa normalarekin alderatuta, puntuazioen banaketa izan da asimetrikoa eskuin aldetik, eta ez hain zorrotza.
- Fisherren asimetria koefizientea 0,36 da, eta hori da asimetria eskuinekoa izatearen arrazoia. Izan ere, batez bestekotik beherako puntuazioetan ikusten da guztizko maiztasuna goikoetan baino handiagoa dela (% 53,7 vs % 46,3), eta aldakortasun txikiagoa.
- Fisherren kurtosi koefizientea -0,15 da; horra zergatik den kamutsagoa (banaketa platikurtikoa), hau da, puntuazioen kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan.

5. ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA (ZK)

5.1 Probaren deskribapena

Proba lau estimulu edo egoerak osatu dute: *“Itsas izarra”*, *“Pirinioetako glaziarrak”*, *“Aspirina”* eta *“Ana Peleteioren jauzia eta eneriga-formak”*. Lehenbizikoan 5 item egin ziren, bigarrenean 9, hirugarrenean 10 eta laugarrenean 4, guztira 28 galdera. Horien artean, 25 galderak puntu 1eko balorazioa izan dute, 3ek 2 puntukoa, kasu honetan puntuazio partzialak egon zitezkeelarik (gehieneko puntuazioa 31ekoa izan da).

28 galderei zegozkien atazak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko zientzia prozesuekin daude loturik eta eduki multzo bat baino gehiagokoak dira. Hurrengo taulan erakusten dira galderen zenbait ezaugarri: tipologia (irekia edo itxia), gehienez esleitutako puntuazioa, ebaluatutako prozesu zientifikoa, eta galdera bakoitza zein oinarritzko jakintzari dagokion. Galderen ordena bera da taulan eta probako koadernoan.

Zk.	Item-mota	Gehieneko puntuazioa	asmatutako en %	Ebaluatutako prozesua	Konp. espezifikoak	Oinarritzko jakintzak
1	Itxia	1	% 62,0	Gai zientifikoak identifikatzea	BG: KE1	Zelula / Izaki bizidunak
2	Itxia	1	% 69,1	Froga zientifikoak erabiltzea	BG: KE2 // KE4	Izaki bizidunak / Ekologia eta jasangarritasuna
3	Itxia	1	% 83,9	Fenomeno zientifikoak azaltzea	BG: KE1 // KE2 FK: KE6	Izaki bizidunak / Ekologia eta jasangarritasuna
4	Itxia	1	% 63,5	Fenomeno zientifikoak azaltzea	BG: KE1 // KE2	Izaki bizidunak / Ekologia eta jasangarritasuna
5	Irekia	2	% 83,4	Froga zientifikoak erabiltzea	BG: KE2 // KE3	Izaki bizidunak
6	Itxia	1	% 63,9	Fenomeno zientifikoak azaltzea	BG: KE1 // KE2	Ekologia eta jasangarritasuna / Geologia
7	Itxia	1	% 49,1	Fenomeno zientifikoak azaltzea	BG: KE2	Ekologia eta jasangarritasuna
8	Itxia	1	% 71,4	Fenomeno zientifikoak azaltzea	BG: KE1 // KE2	Ekologia eta jasangarritasuna
9	Itxia	1	% 59,3	Gai zientifikoak identifikatzea	BG: KE2	Ekologia eta jasangarritasuna / Geologia
10	Itxia	2	% 65,9	Froga zientifikoak erabiltzea	BG: KE2 // KE5	Ekologia eta jasangarritasuna
11	Itxia	1	% 43,6	Gai zientifikoak identifikatzea	BG: KE2 FK: KE6	Ekologia eta jasangarritasuna
12	Itxia	1	% 47,2	Fenomeno zientifikoak azaltzea	BG: KE1 // KE2	Geologia
13	Itxia	1	% 27,4	Froga zientifikoak erabiltzea	BG: KE4	Geologia
14	Erdieraikia	2	% 36,1	Gai zientifikoak identifikatzea	BG: KE1 // KE5	Izaki bizidunak / Ekologia eta jasangarritasuna
15	Itxia	1	% 53,3	Gai zientifikoak identifikatzea	FK: KE 1 // KE 2 // KE 6	Oinarritzko trebetasun zientifikoak
16	Itxia	1	% 59,9	Fenomeno zientifikoak azaltzea	FK: KE 3	Materia

17	Itxia	1	% 68,0	Gai zientifikoak identifikatzea	FK: KE 2 // KE 6	Oinarrizko trebetasun zientifikoak
18	Itxia	1	% 54,3	Fenomeno zientifikoak	FK: KE 3	Oinarrizko trebetasun zientifikoak
19	Itxia	1	% 37,6	Fenomeno zientifikoak azaltzea	FK: KE 1 // KE 3	Oinarrizko trebetasun zientifikoak
20	Itxia	1	% 42,8	Fenomeno zientifikoak azaltzea	FK: KE 3	Oinarrizko trebetasun zientifikoak
21	Itxia	1	% 31,8	Fenomeno zientifikoak azaltzea	FK: KE 1 // KE 2	Materia
22	Itxia	1	% 70,0	Fenomeno zientifikoak azaltzea	FK: KE 1 // KE 2 // KE 3 // KE 6	Oinarrizko trebetasun zientifikoak / La materia
23	Itxia	1	% 22,8	Gai zientifikoak identifikatzea	FK: KE 1 // KE 2	Oinarrizko trebetasun zientifikoak
24	Irekia	1	% 19,9	Fenomeno zientifikoak azaltzea	FK: KE 3	Oinarrizko trebetasun zientifikoak
25	Itxia	1	% 44,1	Gai zientifikoak identifikatzea	FK: KE 3	Energia
26	Itxia	1	% 55,4	Fenomeno zientifikoak	FK: KE 3	Energia
27	Irekia	1	% 21,8	Fenomeno zientifikoak	FK: KE 3	Energia
28	Itxia	1	% 46,7	Fenomeno zientifikoak	FK: KE 3	Energia

5.2 Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta konplexuegiak iruditzen zaizkienetan huts egiten dute. Zailtasuna erreferentziazko edukiaren arabera da, zer testu mota den, esparru bat baino gehiago nahasten ote dituen, zer prozesu mota ebaluatzen den, informazioa nola aurkezten den (zenbakietan, benetako egoeretan, modu esplizituan gutxiago edo gehiago, grafikoetan, plano batean...), zein galdera mota den (itxia edo irekia, galdera batekoa edo gehiagokoa den, urrats bakarra edo gehiago egin behar diren...). Aldi berean, elementu hauek guztiek konpetentzia mailak zehazten dituzte (haitan sartzen ditugu ikasleak). Zientziarako konpetentziaren maila bakoitzaren azalpena 5.3.3. atalean dago.

Oker erantzundako galderek edo erantzun zuzenen ehunekorik txikiena duten galderek adierazten digute zein diren menderatu gabeko prozesuak eta atazak edo zein diren testurik zailenak. Hortaz hausnartu beharko litzateke irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan. Irakasleek galdera bakoitzaren analisi xehatua dute zuzenketa-koadernoetan. Informazio honek emaitzak testuinguruan jartzen ditu eta aukera ematen du ebaluazio diagnostikoak bultzatu behar dituen hausnarketa eta hobekuntza-proposamenak bideratzeko.

Aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu galdera hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Ondoko taulak probako galderen **diskriminazio indizea** erakusten du:

Galdera	Diskriminazio indizea
1	0,27
2	0,27
3	0,35
4	0,27
5	0,38
6	0,20
7	0,21
8	0,38
9	0,30
10	0,44
11	0,25
12	0,37
13	0,18
14	0,35

Galdera	Diskriminazio indizea
15	0,36
16	0,32
17	0,35
18	0,33
19	0,14
20	0,32
21	0,15
22	0,42
23	0,33
24	0,39
25	0,19
26	0,41
27	0,44
28	0,43

5.3 Emaitzak

5.3.1 Emaiza orokorrak

Guztira 7368 ikaslek egin dute **Zientziarako gaitasuna** proba. Hona hemen bildutako datu orokorrak:

Egindako probak, guztira:	7368
Lortutako gutxieneko puntuazioa:	0
Lortutako gehieneko puntuazioa:	31
Batez besteko puntuazioa:	16,40
Desbideratze tipikoa:	5,25


Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 0 izan da eta handiena 31 puntu.
- Desbideratze tipikoa 5,25 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 32,01), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun altua dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

5.3.2 Emaitzak generoaren arabera

Atal honetan, **Zientziarako konpetentzia** proban lortutako emaitzak erakusten dira, ikasleen generoaren arabera bereizita.

	Zenbakia	Batez besteko puntuazioa	Desbideratze tipikoa
Neskak	3512	16,50	5,02
Mutilak	3856	16,30	5,45
Nafarroa	7368	16,40	5,25



Mutilek lortutako emaitzak, batez beste, neskek lortutakoak baino txikiagoak dira, eta, aldi berean, mutilen emaitzetan dispersio handiagoa ikusten da neskek lortutakoetan baino. Ikus daitekeenez, mutilek lortutako batez besteko puntuazioa neskek lortutakoa baino 0,20 puntu txikiagoa da: alde hori arintzat jo daiteke, probaren desbideratze tipikoaren laurdena baino txikiagoa baita (5,25).

5.3.3 Konpetentzia mailak

Ikasleek zuzen erantzun dituzten galderak aztertuz, jakin daiteke zer dakiten egiten eta zer ez dakiten ongi egiten. Horrela, lau gaitasun maila ezartzen dira: *1. maila, 2. maila, 3. maila eta +3. maila*.

Horren arabera, 1. eta 2. mailetako ikasleek ez dute lortu konpetentzia, eta 3. edo +3. mailakoek espero den konpetentzia maila dute.

Oro har, maila bakoitzari lotutako gaitasunak honako hauek dira:


1. maila	2. maila	3. maila	+3. maila
Maila horretan dauden ikasleek gaitasun zientifikoaren maila espero baino askoz ere txikiagoa erakusten dute; izan ere, lehenik eta behin, oso galdera gutxiri erantzuten diete zuzen. Testu batetik informazio zientifikoa ateratzeko gai dira, baldin eta esplizitua bada, eta zaila egiten zaie informazioa maneiatzea eta interpretatzea, testuak taulak edo grafikoak dituenean. Ikasle horiek zailtasunak dituzte esperimendu zientifiko baten helburua identifikatzeko eta esperimendu horretan lortutako emaitzetatik ondorioak ateratzeko. Bestalde, ez dute eraginkortasunez egiten emaitza kuantitatibo zuzenak lortzea ahalbidetzen dion planteamendurik.	Maila horretan dauden ikasleek uste baino maila baxuagoa dute. Galdera errazei erantzuteko gai dira, gaitasunaren garapenaren oinarritzko maila baitira. Egoera sinplea bada, testu batetik informazio zientifikoa ateratzeko gai dira; oro har, grafikoki irudikatutako informazioa uler dezakete. Ikasle horiek ondorio errazak atera ditzakete esperimendu bat erreproduzitzen duen egoera baten aurrean, abiapuntuko egoera ulertzen baitute, baina zailtasunak dituzte esperimendu osoa ulertzeko. Planteamendua hasten dute, baina ez dute emaitza kuantitatibo egokirik lortzen.	Ikasle horiek gaitasuna menderatzen dutela erakusten dute. Galdera askori zuzen erantzuten diete, testuinguru errealei buruzkoak barne. Gai dira testuetatik informazio zientifikoa ateratzeko, tauletatik edo grafikoetatik datorrena barne, eta ondorio orokorrak ateratzeko. Maila honetako ikasleek hasierako egoera ulertzen dute eta metodo zientifikoaren ulermen orokorra erakusten dute, esperimendu zientifikoetatik ateratako ondorioak ulertzeko. Ebazteko eta emaitza kuantitatiboak lortzeko planteamenduak egiteko autonomia dute.	Ikasle horiek gaitasunaren menderatze-maila handia erakusten dute. Erantzun zuzena ematen diete galdera gehienei. Ikasle horiek gai dira testuetatik informazio zientifikoa ateratzeko, taulak edo grafikoak dituztenak barne, eta ondorio orokorrak ateratzeko herritarren intereseko askotariko gaitan. 3+ mailako ikasleek ondo ezagutzen dute metodo zientifikoa, faseen sekuentziario zehatza, eta testu deskribatzaile batean azaldutako emaitza esperimenduetatik ondorioak ateratzeko gai dira. Emaitza kuantitatiboak lor ditzakete egoera konplexuetan.

Mailen zenbakizko zehaztapena

Ikasleak maila jakin bati esleitzea proban lortzen den puntuazioaren arabera da.

Hurrengo taulan gaitasun maila bakoitza zehazten duten puntuazio-tarteak eta maila bakoitzean dagoen Nafarroako ikasleen ehunekoa islatzen dira:

	Puntuazio-tarteak	Ikasleen ehunekoa
1. maila	[0, 9.5)	% 9,41
2. maila	[9.5, 13.5)	% 19,26
3. maila	[12.75, 23.5)	% 61,24
+3. maila	[23.5, 31]	% 10,10



Alderdi azpimarragarriak:


- Hamar ikasletik ia zazpik (% 71,34) 3. maila edo 3.+ maila erdietsi dute; gai dira beraien eskolatze mailari dagozkion irakurketa prozesu zientifikoak gauzatzeko. % 10,10k bikaitasun maila erdietsi dute.
- Ia hamar ikasletik batek (% 9,41) neurri bereziak behar ditu, behe-beheko mailan dagoelako.
- Bost ikasletik bat (% 19,26) tarteko egoeran dago, ikasmailari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

5.4 Puntuazioen banaketa

Atal honetan, **Zientziarako konpetentziaren** proban lortutako zuzeneko puntuazioen banaketari erreparatuko diogu.

Ezkerreko taulan, proba honetan behatutako parametro estatistikoak agertzen dira, eta grafikoak lortutako zuzeneko puntuazioen banaketa islatzen du:

	ZG
Egindako probak	7368
Batez besteko puntuazioa	16,40
Desbideratze tipikoa	5,25
Asimetria	-0,05
Kurtosia	-0,34



Alderdi azpimarragarriak:

- Banaketa normalarekin alderatuta, puntuazioen banaketa izan da zertxobait asimetrikoa ezker aldetik, eta zerbait kamutsagoa.
- Fisherren asimetria koefizientea -0,05 da, eta hori da asimetria ezkerrekoa izatearen arrazoiak. Izan ere, batez bestekotik beherako puntuazioetan ikusten da guztizko maiztasuna goikoetan baino txikiagoa dela (% 49,8 vs % 50,2), eta aldakortasun handiagoa.
- Fisherren kurtosi koefizientea -0,34 da; horra zergatik den kamutsagoa (banaketa platikurtikoa), hau da, puntuazioen kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan.

6. INGELESEZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA (IHK)

6.1 Probaren deskribapena

Proba hiru trebetasun neurtzen dituzten itemek osatu dute: ahokoaren ulermena (*Listening*), 10 galderarekin, idatziaren ulermena (*Reading*), 20 galderarekin, eta idatzizko adierazpena (*Writing*), galdera batekin. Irakurriaren ulermenak, aldi berean, hiru zati ditu: lehenean ikasleek zenbait iragarki edo kartel lotu behar dituzte haien esanahia azaltzen duen baieztapenarekin (*Reading 1*); bigarrenean testu jarraitu eta deskriptibo/azalpenezko bati buruzko hainbat galdera erantzun behar dira (*Reading 2*); eta hirugarrenean testu bateko hutsuneak zuzen bete behar dira aldeztatik emandako hitzekin, horietako asko izenordainak, determinatzaileak, aditz osagarriak edo adberbioak (*Reading 3*). Idatzizko adierazpenean oportu bati buruz hitz egin behar da aurtan; horretarako, ideia eta kontsigna batzuk eman zitzaizkien testua antolatzeke.

Hizkuntza trebetasun horiek pisu desberdina dute puntuazio osoaren barnean; hona puntuazio horiek:

Trebetasuna	Puntuazioa	Zenbat balio duen, puntuazio osoarekin alderaturik
Listening	10	% 23,8
Reading	22	% 52,3
Writing	10	% 23,8
GUZTIRA	42	% 100

Hogeita hamaika galderekin landu ziren atazek prozesu kognitiboak neurtzeko balio dute, eta erantzun mota desberdinak eskatzen dituzte. Ondoko taulan, ezaugarri horiek erakusten dira galdera bakoitzerako, eta lortutako asmatze-ehunekoa eta bakoitzari dagokion gehieneko puntuazioa gehitzen dira. Galderen ordena bera da taulan eta probako koadernoan.

Zatia	Zk.	Item-mota	Gehieneko puntuazioa	asmatutakoen %	Konp. espezifikoa	Ebaluatutako prozesua	Oinarrizko jakintzak
<i>Listening</i>	1	Itxia	1	% 36,2	KE 1	Aurkitzea	A2, A5, A6, A8
<i>Listening</i>	2	Itxia	1	% 42,0	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, A8
<i>Listening</i>	3	Itxia	1	% 32,8	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, A8
<i>Listening</i>	4	Itxia	1	% 47,9	KE 1	Aurkitzea	A2, A5, A6, A8
<i>Listening</i>	5	Itxia	1	% 76,5	KE 1	Aurkitzea	A2, A5, A6, A8
<i>Listening</i>	6	Itxia	1	% 53,2	KE 1	Aurkitzea	A2, A5, A6, A8
<i>Listening</i>	7	Erdi-eraikia	1	% 30,7	KE 1	Aurkitzea	A2, A5, A6, A8
<i>Listening</i>	8	Itxia	1	% 25,2	KE 1	Aurkitzea	A2, A5, A6, A8
<i>Listening</i>	9	Itxia	1	% 62,1	KE 1	Interpretatzea / Aurkitzea	A2, A5, A6, A8
<i>Reading 1</i>	10	Itxia	1	% 40,9	KE 1	Ulermen globala	A2, A5, A6, A8
<i>Reading 1</i>	11	Itxia	1	% 59,5	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, C3

Reading 1	12	Itxia	1	% 61,0	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, C3
Reading 1	13	Itxia	1	% 68,9	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, C3
Reading 1	14	Itxia	1	% 48,4	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, C3
Reading 1	15	Itxia	1	% 66,6	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, C3
Reading 1	16	Itxia	1	% 69,2	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, C3
Reading 1	17	Itxia	1	% 44,0	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, C3
Reading 1	18	Itxia	1	% 79,2	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, C3
Reading 1	19	Itxia	1	% 84,5	KE 1	Aurkitzea	A2, A5, A6, C3
Reading 2	20	Itxia	1	% 65,5	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6, C3
Reading 2	21	Itxia	1	% 48,7	KE 1	Aurkitzea	A2, A5, A6
Reading 2	22	Itxia	1	% 69,7	KE 1	Aurkitzea	A2, A5, A6
Reading 2	23	Itxia	1	% 67,0	KE 1	Aurkitzea	A2, A5, A6
Reading 2	24	Erdi-eraikia	1	% 60,4	KE 1	Aurkitzea	A2, A5, A6
Reading 2	25	Itxia	1	% 60,5	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6
Reading 2	26	Itxia	1	% 74,2	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6
Reading 2	27	Itxia	1	% 58,8	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6
Reading 2	28	Itxia	1	% 61,3	KE 1	Interpretatzea	A2, A5, A6
Reading 2	29	Itxia	1	% 42,1	KE 1	Ulermen globala / Aurkitzea	A2, A5, A6
Reading 3	30	Erdi-eraikia	3	% 65,4	KE 1 / KE 2	Hausnartzea	A2, A6, A9
Writing	31	Irekia	10	% 53,1	KE 2	----	A2, A4, A5, A6, A7, A9, B1, B3

6.2 Galderak: informazioa

Maila bereko ikasleek zailtasun jakin batera arteko galderak zuzen erantzun ohi dituzte eta konplexuegiak iruditzen zaizkienetan huts egiten dute. Zailtasuna ondokoen arabera da: neurtzen den trebetasuna, erreferentziako testuaren konplexutasuna, aktibatu beharreko ataza edo prozesu mota edo itemak eskatzen duen galdera mota (itxia, erdieraikia edo irekia, eskatzen duena gauzak identifikatzea, lotzea, ordenatzea, hautatzea...). Aldi berean, elementu hauek guztiek konpetentzia mailak zehazten dituzte (haietan sartzen ditugu ikasleak). Ingeleseko hizkuntza konpetentziaren maila bakoitzaren azalpena 6.3. atalean dago.

Oker erantzundako galderek edo erantzun zuzenen ehunekorik txikiena duten galderek adierazten digute zein diren menderatu gabeko prozesuak eta atazak edo zein diren testurik zailenak. Hortaz hausnartu beharko litzateke irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan. Irakasleek galdera bakoitzaren azterketa xehatua dute Hezkuntza Departamentuaren webgunean eta Hezkuntza Departamentuaren barne-plataformako hainbat ataletan eskuragarri dauden zuzenketa-koadernoetan. Informazio horrek emaitzak testuinguruan

kokatzen ditu, eta aukera ematen du bideratzeko Ebaluazio Diagnostikoak eragin behar dituen hausnarketa eta hoberkuntza-proposamenak ondoko gaien gainekoak.

Aldi berean, galdera bakoitza diskriminazio indize batekin lotzen da (itemaren eta guztizkoaren arteko korrelazio zuzendua) eta horrek erakusten digu galdera hori zuzen erantzutea zenbateraino loturik dagoen proba osoan emaitza ona lortzearekin. Diskriminazio indizeak positiboa behar du izan eta horrek esan nahi du galdera zuzen erantzun duten ikasleek oro har oker erantzun duten ikasleek baino batez besteko puntuazio handiagoa izanen dutela.

Ondoko taulak probako galderen **diskriminazio indizea** erakusten du:

Galdera	Diskriminazio indizea	Galdera	Diskriminazio indizea
1	0,39	17	0,43
2	0,35	18	0,51
3	0,32	19	0,49
4	0,17	20	0,53
5	0,29	21	0,42
6	0,34	22	0,33
7	0,52	23	0,46
8	0,20	24	0,52
9	0,33	25	0,50
10	0,12	26	0,51
11	0,49	27	0,38
12	0,44	28	0,59
13	0,53	29	0,42
14	0,31	30	0,77
15	0,48	31	0,71
16	0,58		

6.3 Emaitzak

6.3.1 Emaitza orokorrak

Guztira 7349 ikaslek egin dute **Ingeleseko hizkuntza konpetentzia** proba. Hona hemen bildutako datu orokorrak:

Egindako probak, guztira:	7349
Lortutako gutxieneko puntuazioa:	0
Lortutako gehieneko puntuazioa:	42
Batez besteko puntuazioa:	23,65
Desbideratze tipikoa:	9,38


Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 0 izan da eta handiena 42 puntu.
- Desbideratze tipikoa 9,38 puntukoa da (batez besteko puntuazioaren % 39,66), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun altua dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.

6.3.2 Emaitzak generoaren arabera

Atal honetan, **Ingelesezko hizkuntza konpetentzia** proban lortutako emaitzak erakusten dira, ikasleen generoaren arabera bereizita.

	Zenbakia	Batez besteko puntuazioa	Desbideratze tipikoa
Neskak	3509	24,73	8,98
Mutilak	3840	22,65	9,62
Nafarroa	7349	23,65	9,38



Neskek lortutako emaitzak, batez beste, mutilek lortutakoak baino handiagoak dira, eta, aldi berean, ez hain barreiatuak. Ikus daitekeenez, neskek lortutako puntuazioa mutilek lortutakoa baino 2,08 puntu handiagoa da: alde hori moderatutzat jo daiteke, probaren desbideratze tipikoaren laurdena baino txikiagoa baita (9,38).

6.3.3 Konpetentzia mailak

Ikasleek zuzen erantzun dituzten galderak aztertuz, jakin daiteke zer dakiten egiten eta zer ez dakiten ongi egiten. Horrela, lau konpetentzia maila ezartzen dira: *1. maila, 2. maila, 3. maila eta +3. maila*.

Horren arabera, 1. eta 2. mailetako ikasleek ez dute lortu konpetentzia, eta 3. edo +3. mailakoek espero den gaitasun maila dute.

Oro har, maila bakoitzari lotutako gaitasunak honako hauek dira:

1. maila	2. maila	3. maila	+3. maila
Maila horretan dauden ikasleek espero dena baino askoz hizkuntza-gaitasun txikiagoa dute ingelesez. Testu idatziei dagokienez, gai da hitzez hitzeko informazioa ulertzeko, baina zailtasunak ditu informazioa aurkitzeko, testua etena bada. Zailtasunak ditu interpretazioa, ulermen orokorra, hausnarketa eta	Maila horretan dauden ikasleek espero baino hizkuntza-gaitasun txikiagoa dute ingelesez. Irakurmenari dagokionez, hitzez hitzeko informazioa ulertzea eskatzen duten galderei erantzun diezaike, bai testu jarraituetan, bai testu eten errazetan. Hala ere, zailtasunak ditu testuak oro har ulertzeko, interpretatzeko eta baloratzeko. Ez da gai inferentzia konplexuak egiteko, ezta ondoz ondoko bi paragrafotan dauden hainbat ekintza konektatzeko ere.	Maila honetako ikasleak espero den gaitasuna lortu du. Zuzen erantzuten ditu informazioa bilatzearekin lotutako galderak, hitzez hitzekoak zein ez hitzez hitzekoak. Aldizkako testu batean, informazioa eta haren banaketa zuzen ulertzen ditu. Testua oro har ulertzen du, eta emandako esaldien bidez historiaren sekuentzia berreraikitze gai da. Testu	Ikasle horiek konpetentzia asko menderatzen dutela erakusten dute. Informazio literal eta ez-literal bilatzearekin eta mota guztietako testuekin lotutako galderak zuzen ebazten ditu. Testua orokorki ulertzen du eta istorio baten sekuentzia berreraiki dezake laguntzarik gabe. Oso ondo egiten ditu testu baten edukiari eta formari buruz hausnartzea eskatzen


balorazioa eskatzen duten galderei erantzuteko. Hizkuntzaren ezagutza gabezia handiak daude. Zailtasun handiak ditu ahoz ulertzeko. Planteatutako gaiari buruz osatu gabeko esaldiren bat idazteko gai baino ez da.	Pertsonaien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak interpretatzea zaila egiten zaio. Ez ditu menperatzen aurreuposatzen zaizkion hizkuntza-egiturak, eta, beraz, ez da gai testu baten formari buruz hausnartzeko. Mezuak audio errazetan ulertzeko gai da. Planteatutako gaiari buruzko esaldiren bat baino ezin duzu idatzi.	baten edukiari eta formari buruz hausnartzeko gai da, eta horrek lagundu egiten dio hizkuntza ezagutzen. Testuko datuak aprobetxatzeko gai da, edukia beste testuinguru batean aplikatzeko beharrezkoa den informazio garrantzitsua ateratzeko. Audio-mezuak ulertzeko gai da. Planteatutako gaiari buruzko testu errazak idatz ditzakezu ingelesez.	duten zereginak, eta, horretarako, bere ezagutza propioak erabiltzen ditu. Audioko mezuak zehatz-mehatz ulertzen ditu. Ondo egituratutako eta kohesionatutako testuak idatz ditzake, etapako berezko baliabideak erabiliz.
---	--	---	---

Mailen zenbakizko zehaztapena

Ikasleak maila jakin bati esleitzea proban lortzen den puntuazioaren arabera da.

Hurrengo taulan konpetentzia maila bakoitza zehazten duten puntuazio-tarteak eta maila bakoitzean dagoen Nafarroako ikasleen ehunekoa islatzen dira:

	Puntuazio-tarteak	Ikasleen ehunekoa
1. maila	[0, 9.85)	% 9,99
2. maila	[9.85, 18.45)	% 19,96
3. maila	[18.45, 35.5)	% 59,63
+3. maila	[35.5, 42]	% 10,42



Alderdi azpimarragarriak:


- Hamar ikasletik zazpik (% 70,05) 3. maila edo +3. maila erdietsi dute; gai dira ebaluatu diren hiru trebetasunetan planteatu diren prozesuak gauzatzeko. Prozesu horiek beren eskolatze mailari-dagozkio. Hamar ikasletik batek (% 10,42) erdietsi du bikaintasun maila.
- Hamar ikasletik batek (% 9,99) neurri bereziak behar ditu, maila apalenean dagoelako.
- Bost ikasletik bat (% 19,96) tarteko egoeran dago, ikasmilari dagozkion atazen parte bat egiten dute.

6.4 Puntuazioen banaketa

Atal honetan, **Ingeleseko hizkuntza konpetentzia** proban lortutako zuzeneko puntuazioen banaketari erreparatuko diogu.

Ezkerreko taulan, proba honetan behatutako parametro estatistikoak agertzen dira, eta grafikoak lortutako zuzeneko puntuazioen banaketa islatzen du:

	IHK
Egindako probak	7349
Batez besteko puntuazioa	23,65
Desbideratze tipikoa	9,38
Asimetria	-0,28
Kurtosia	-0,89



Alderdi azpimarragarriak:

- Banaketa normalarekin alderatuta, puntuazioen banaketa izan da asimetrikoa ezker aldetik, eta ez hain zorrotza.
- Fisherren asimetria koefizientea -0,28 da, eta hori da asimetria ezkerrekoa izatearen arrazoia. Izan ere, batez bestekotik beherako puntuazioetan ikusten da guztizko maiztasuna goikoetan baino txikiagoa dela (46,3% vs 53,7%), eta aldakortasun handiagoa.
- Fisherren kurtosi koefizientea -0,89 da; horra zergatik den kamutsagoa (banaketa platikurtikoa), hau da, puntuazioen kontzentrazio txikiagoa dago batez bestekoaren inguruan.

7. ALDAGAI SOZIOEKONOMIKO ETA KULTURALA

Edizio honetan, DBHko 2. mailako ikasleek aldagai soziokulturalari eta ekonomikoari buruzko testuingurugaldetegi bat bete dute, eta dagokion Indize Sozioekonomiko eta Kulturala (ISEK) kalkulatzeko informazioa atera da.

7.1 ISEK lortzea eta erabiltzea

Galdetegiaren helburu nagusia da informazioa biltzea Indize Sozioekonomiko eta Kulturala (ISEK) egiteko. Indize hori, lehenik, ikasleari dagokio, eta, bigarrenik, ikastetxeari. Indize honek kontuan hartzen dituen aldagaiak dira PISA proiektuan eta Hezkuntza Ebaluazioaren Institutu Nazionalak autonomia erkidegoekin elkarlanean egindako ebaluazio diagnostiko orokorretan erabilitako antzekoak. Indizea prestatzeko aldagaiak lau hauek dira:

- Gurasoen edo legezko tutoreen ikasketa-maila (bietako edozeinek duen handiena hartzen da kontuan), behetik gorako 9 kategoriaren sailkaturik dagoena.
- Gurasoek edo legezko tutoreek egiten duten lana (bietako edozeinen lan-kategoriarik handiena hartzen da kontuan, betiere horietariko batek lan egin eta soldata bat irabazten badu). Behetik gorako 5 kategoriatan dago sailkatuta (0 balioa ematen da bietako batek ere ez badu lan egiten eta soldata bat irabazten).
- Etxean dituzten irakurtzeko liburuen kopurua, behetik gorako 5 kategoriatan sailkaturik.
- Zenbait kontsumo ondasun etxean ba ote dituzten. Bost hauek hartu dira: mahai gaineko ordenagailua edo ordenagailu eramangarria (ikastetxean eman dizutenaz bestelakoa), ikasten laguntzen dizuten entziklopediak edo kontsulta-liburuak (paperezkoa edo digitala), aldizkari espezializatuak (informatika, natura, literatura, etab.), tableta eta norberaren gela izatea. Otik 5era bitarteko balioak eman daitezke, etxean dauden kontsumoko ondasunen arabera.

Pisu bera eman zaie aurreko lau aldagaiei, halako moldean non haien balioak zenbatuta lortzen baita ikasle bakoitzari dagokion ISEKaren banakako balioa (banakako ISEKaren zuzeneko puntuazioak). Ikasleei esleituriko puntuazioak eraldatu egin dira, batez bestekoa 0 eta desbideratze tipikoa 1 dituen banaketa normalaren arabera, hartara, 0 izanen delarik Nafarroaren batez bestekoa (banakako ISEKaren puntuazio estandarizatuak). Ikastetxe bakoitzari ISEK balio bat esleitu zaio; hots, ikastetxe horretako ikasleen indizeen batez bestekoa (ikastetxeko ISEKa).

Ebaluazio azterlan guztietan egiaztatzen ari da ikasleek probetan duten errendimenduaren eta haien maila soziokulturalaren artean korrelazio moderatua dagoela. Txosten honen 7.3 atalean daude ikastetxeetako batez besteko puntuazioen eta batez besteko ISEK balioen arteko korrelazioak, konpetentzia bakoitzaren arabera banatuta, eta ikastetxeko Errendimendua-ISEKa erregresio-zuzenen grafikoak.

- Errendimenduaren eta ikastetxeko ISEKaren arteko korrelazio-koefizienteek adierazten dute ikastetxeko ISEKak eta proba bakoitzean lortutako errendimenduak nolabaiteko korrelazio positiboa dutela. Koefizientearen balioa 1etik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta korrelazioa altuagoa izaten da.
- Ikastetxeko ISEKak ikastetxeen batezbesteko puntuazioen arteko bariantzaren edo aldean parte bat azaltzen du. Bariantza azaldua biderkadura honek ematen du: $100 \cdot R^2$, non R^2 erregresio-grafikoetan ageri den determinazio-koefizientea den. Biderkadura hori konpetentziaren arabera aldatzen da.

- *Errendimendua-Ikastetxeko ISEKa* izeneko erregresio-zuzenak malda positiboa dute; horrek esan nahi du ikastetxeko ISEKa handitu ahala batez besteko errendimenduak ere gora egiten duela. Espero izatekoa den eraginaren intentsitatea konpetentzia batetik bestera aldatzen da: ikastetxeko ISEKaren balioa igotzen den unitate bakoitza loturik dago, ikastetxearen batez besteko puntuazioaren igoerarekin. Ondoko taulan datu hori gradiente modura ageri da.

Taula honetan, proba bakoitzean lortutako **korrelazio-koefizienteen** eta **100* R2** koefizienteen balioak aurkezten dira:

	Korrelazio koefizientea	Azaldutako bariantzaren (100*R2) ehunekoa (%)	Erregresioko malda zuzena (gradientea)
Gaztelaniazko hizkuntza konpetentzia	0,77	59,43	56,75
Euskarazko hizkuntza konpetentzia	0,40	16,19	50,94
Matematikarako konpetentzia	0,75	55,84	55,22
Zientziarako konpetentzia	0,75	55,69	60,66
Ingeleseko hizkuntza konpetentzia	0,73	52,91	61,96

Esan behar da ISEKa ez dela errendimendua azaltzen duen aldagaia, baina aldagai iragarle modura erabiltzen da, hau da, ikastetxeei puntuazioak eman dakizkieke beren ISEKaren arabera eta gero ikastetxeak lortutako balio hori benetan lortutako emaitzarekin konparatu. Ikastetxeetako txostenetan ikastetxeko puntuazioa irudikatu da "ISEK-Errendimendua" motako erregresio-grafikoan; horri esker, lortutako puntuazioa ISEK balioaren arabera iragartzen ahal den puntuazioarekin erka dezakegu. Grafiko horretan ikastetxeek duten posizioari dagokionez, 3 kasu desberdin ditugu:

- Erregresio-zuzena baino gorago dauden ikastetxeak: haien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEKa) arabera iragarritakoa baino batezbesteko handiagoa lortu dutenak.
- Erregresio-zuzena baino beherago dauden ikastetxeak: haien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera iragarritakoa baino batezbesteko txikiagoa lortu dutenak.
- Erregresio-zuzenean berean dauden ikastetxeak: iragarritako puntuazioa lortu dutenak.


Erregresioko grafikoetako informazioak testuinguruan kokatzen ditu ikastetxeen emaitza orokorrak, ikastetxeko ikasleen batez besteko ezaugarri soziokulturalen arabera, eta haien emaitzak aukera ematen du Nafarroako batezbestekoarekin modu justuagoan konparatzeko. ISEKa 0 baino handiagoa duen ikastetxe batek batez besteko puntuazioa (500 puntu) baino puntuazio handiagoa lortu beharko luke eta ISEKa 0 baino txikiagoa duen ikastetxe batek 500 puntutik beherako batez besteko puntuazioa lortzea espero izatekoa da. Baina ikusten ari gara ez dela beti iragarpen generiko hori betetzen, eskolako errendimenduan izaten baitira beste aldagai batzuk, hala nola norberaren lana, ikasteko estrategiak, familiako itxaropenak, beren irakasleen itxaropenak, etab.

Ikastetxe bakoitzak dituen ISEK balioa eta erregresio-zuzenarekiko kokapena gorabehera, guztietan hobetu daiteke lortutako emaitza, bi aldagai horien arteko erlazioa ez baita determinista edo funtzionala; izan badira ikasleen errendimenduan eragiten duten beste aldagai batzuk. Ondorio horretara iritsi gaitzke, erregresio-

grafikoetan ikusten baitugu ISEK bera duten ikastetxeek emaitza desberdinak lortzen dituztela eta, beraz, ekitate desberdina dutela, erran nahi baita, ikasleen maila sozioekonomiko eta kultural txikiagoagatik sortutako hasierako desabantailak konpentsatzeko gaitasun desberdina. Ikastetxeko zer aldagaik eragiten duten modu batera edo bestera ikertzea interesgarria da ikastetxean berean hobekuntza neurriak hartzeko. Hala eginez gero, hezkuntza sistema osoa hobetuko litzateke.


Jarraian, proba bakoitzerako, **ikastetxeko ISEK – Puntuazio eraldatua** puntu-hodeia aurkezten da, dagokion **erregresio-zuzenarekin**. Ardatz horizontalean irudikatu dira ikastetxeetako ISEK balioak eta ardatz bertikalean, berriz, ikastetxe bakoitzaren batez besteko puntuazio normalizatua konpetentzia bakoitzean. Puntu bakoitzak ikastetxe bat irudikatzen du eta erdiko puntua (ISEK = 0, puntuazio normalizatua = 500) Nafarroako batezbestekoari dagokio. Ikastetxeen tamaina askotarikoa denez (5tik 267 ikaslera bitarte), erregresio-zuzenaren koefizienteak lortu dira ikastetxe bakoitzaren datuak haztatuz, ikastetxe horietako bakoitzean ebaluatutako ikasleen kopuruaren arabera. Haztapen horrek grafikoetan azaldutako koefizienteak adierazgarriago egiten ditu eta, beraz, ondorio fidagarriagoak ateratzen laguntzen du.

7.1.1 Erregresio-zuzena: GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA




Ikastetxeen batez besteko puntuazio normalizatuen arteko alderik handiena 217,62 puntukoa da.

7.1.2 Erregresio-zuzena: EUSKARAZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA




Ikastetxeen batez besteko puntuazio normalizatuen arteko alderik handiena 226,74 puntukoa da.

7.1.3 Erregresio-zuzena: MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA




Ikastetxeen batez besteko puntuazio normalizatuen arteko alderik handiena 221,07 puntukoa da.

7.1.4 Erregresio-zuzena: ZIENTZIARAKO KONPETENTZIA



Ikastetxeen batez besteko puntuazio normalizatuen arteko alderik handiena 234,01 puntukoa da.

7.1.5 Erregresio-zuzena: INGELESEZKO HIZKUNTZA KONPETENTZIA




Ikastetxeen batez besteko puntuazio normalizatuen arteko alderik handiena 237,33 puntukoa da.

7.2 ISEKaren banaketa

7.2.1 BANAKAKO PUNTUAZIOAK


Ondoko grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko banakako ISEKaren puntuazio zuzenen banaketa:



Alderdi azpimarragarriak:

- Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuaziorik txikiena 2 izan da eta handiena 20 puntu.
- Desbideratze tipikoa 3,88 puntukoa da, batez besteko puntuazioaren % 30,45 (batez bestkoa 12,76 da), eta horrek adierazten du norbanakoen puntuazioetan aldakortasun moderatua dagoela batez besteko puntuazioaren aldean.
- Banakako ISEKaren puntuazio zuzenen banaketa, banaketa normalarekin alderatuta, asimetrikoa gertatu da ezker aldetik, eta ez hain zorrotza.
 - Fisherren asimetria koefizientea 0,028 da, eta hori da asimetria eskubikoa izatearen arrazoia. Izan ere, batez bestekotik beherako puntuazioen guztizko maiztasuna (12,76) batez bestekotik gorako puntuazioen guztizko maiztasuna baino handiagoa da (% 55,70 vs % 44,30).
 - Fisherren kurtosi koefizientea -0,631 da.


Eskuineko grafikoan irudikatzen da ikasleek lorturiko banakako ISEKaren puntuazio normalizatuen banaketa. Kontuan hartu horren forma aurrekoarena bera dela, aipatu behar bada ere balioak -2,77 eta 1,86 artekoak dituela, batez bestekoa 0 duela eta desbideratze tipikoa, berriaz, 1.



7.2.2 IKASTETXEKO PUNTUAZIOAK

Ebaluazioan sartuta dauden 95 ikastetxeetako bakoitzari "ikastetxeko ISEKa" eman zaio (guztira 110 ISEK, kontuan harturik eskolak AG ereduetan eta BD ereduetan ematen dituzten ikastetxeen kasuan bi ISEK esleitu direla); ISEK horren balioa lortzeko, ebaluatutako ikasleen banakako ISEK estandarizatuen batezbestekoa egin da. Ikastetxeek -1,3192 eta +1,0666 arteko ISEK balioak dituzte; horrek agerian uzten du ikastetxeen batez besteko baldintza sozioekonomikoak askotarikoak direla.

Grafikoan irudikatzen dira ikastetxeko ISEK balioak. Ikastetxeak 4 taldetan sailkatu dira, ikastetxeen ISEKaren maiztasun banaketaren kuartilak bereizten dituzten 3 atalaseen arabera.



4 taldeak zehazten dituzten 3 atalaseak -0,2883, +0,0466 eta +0,3859 dira.

Sailkapen horretan 27 ikastetxek dituzte ISEK balioak lehen kuartilaren barruan (maila baxua, ISEKa -0,2883 baino txikiagoa), 28 ikastetxek bigarren kuartilaren barruan dituzte ISEK balioak (maila baxua-ertaina, ISEKa -0,2883 eta 0,0466 artean), 28 ikastetxek hirugarren kuartilean (maila ertain-altua, ISEKa 0,0466 eta 0,3859 artean) eta 27 ikastetxek goiko kuartilean (maila altua, ISEKa 0,3859 baino handiagoa).

Nafarroako Hezkuntza Departamentua

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua

Ebaluazio Atala

Iruñean, 2026ko ekainaren 30ean